

Bertso-estrofak izendatzeko irizpideak

© EUSKAL HERRIKO BERTSOZALE ELKARTEA

© LANKU BERTSO ZERBITZUAK S.L.

Maketazioa: LANKU Bertso Zerbitzuak, S.L.

Argitaratzaileak:

LANKU BERTSO ZERBITZUAK S.L.

Astigarraga bidea, 2, 2.

Oiartzun

BERTSOZALE ELKARTEA

Nagusia, 70

Villabona

I.S.B.N.: 978-84-89283-56-5

I.S.B.N.: 978-84-937340-1-5

L.G.:

AURKIBIDEA

1. SARRERA	5
2. CORPUSAREN GAINEKO OHARRA	6
3. ESTROFEN EZAUGARRI TEKNIKOAK ETA IZENDAPENA	6
3.1 Ezaugarri teknikoak	6
3.2 Ezaugarri teknikoak \neq izendatzea	7
3.3 Izendatzea	7
3.3.1 Iparraldeko eta Hegoaldeko sistemak	7
3.3.2 Eskema metrikoak idazteko arauak	9
3.3.3 Estrofen erregularitasuna/irregularitasuna	10
3.3.3.1. Erregularrak	10
3.3.3.2. Irregularrak	11
3.3.4 Gertaera berezi batzuk	16
3.3.5 Estrofak izendatzeko arauak	20
4. MULTZOAK	22
4.1. I. multzoa. Handien, ertainen eta txikien multzoa	22
4.2. II. multzoa. Berdinen multzoa	24
4.3. III. multzoa. Koplen multzoa	25
4.4. IV. multzoa. Neurri askotarikoen multzoa	26
4.5. V. multzoa. Berezien multzoa	28
5. AMAIERA	29
6. GLOSATEGIA	30

1.SARRERA

Lan honek oso helburu zehatza du: **bertsogintzan erabili izan diren eta egun erabiltzen diren estrofa sailkatu eta izendatzeko sistema bat eskaintzea** (erraza, neurri guztientzako modukoa, praktikoa eta sistematizaziorako –eta ondorioz, bilaketarako- egokia), eta gerora sor daitezkeen ereduak izendatzeko oinarri eta jarraibideak jartzea.

Bertsogintzaren usadioari erreparatuta, denetarik aurki daiteke: bertso jarrien eremua oparoa da, adibidez, bat-bateko bertsogintzarena baino askoz gehiago, kopuruz behintzat. Aldi batetik bestera aldatu egiten dira joera estetikoak, eta horrek eragina du bertsogintzan, baita estrofa gintzan ere. Aldi batzuetan, estrofa mota baten alde lerratuko ziren zenbait sortzaile, puntu askoko egituren alde, esaterako; beste batzuetan, puntuak pilatzeaz gain, silaben erregulartasuna eta esaldien ohiko egitura haustera joko zuten; hurrena puntu luze eta motzak elkarrekin uztartzera... **Joera guztiei eta ahalegin estetiko guztiei erantzungo dien sailkapen modu bat eskaintzera dator lan hau**, muga argi batekin, hala ere.

Helburua ez da estrofa mota guztiak bere baitan hartuko lituzkeen sailkapena egitea. Juan Mari Lekuonak halaxe egin nahi izan zuen *Euskal estrofez*¹ lanean, nahiz eta berak ere aitortzen zuen ia ezinezkoa dela hori egitea. Gerora, Joanito Dorronsoro, adibidez, lan hari jarraiki zaio bere *Bertso Doinutegian*². Gure lanak ez du hartuko hain esparru zabala; gu bertso-estrofetara mugatuko gara, eta Dorronsororen doinutegitik, adibidez, **bertso-estrofa soilik hartuko ditugu**.

Horrek ere badakar, ordea, arazotxo bat: zein irizpidek erabakitzen du zein den bertso-estrofa eta zein ez? Honako hau jarri dugu guk: **eskema metrikoetan gutxieneko erregulartasuna bat erakusten ez duten estrofa baztertu egingo ditugu gure sailkapenetik**, eta honako ezaugarri tekniko hauei erreparatu diegu gutxieneko erregulartasunaren auzia erabakitzeke (horiek dira-eta estrofen osagai aipagarrienak):

- Bertso-lerro kopurua
- Bertso-lerroen silaba kopurua
- Bertso-lerroak isosilabikoak edo anisosilabikoak diren (silaba kopuru bera duten, erregulartasun bat erakusten duten, edo aldatu egiten diren bertso-lerrotik bertso-lerrora edo puntutik puntura)

¹LEKUONA, J.M. "Euskal estrofez" in *Euskera*, 39. zkia. 1994, 1187-1219 or. Lan hori erabili dugu eredutzat gurea egiteko. Juan Mari Lekuonak egiten duen proposamena moldatu baino ez dugu egin funtsean. Ikuspegia, terminologia eta are adibide batzuk ere hartu dizkiogu.

²DORRONSORO, J. *Bertso Doinutegia*. Donostia: Euskal Herriko Bertsozale Elkarte, 1955. 4 liburuki eta lan hori eguneratua dago Interneten (www.bertsozale.com)

2. CORPUSAREN GAINEKO OHARRA

Esku artean erabili dugun corpusa Joanito Dorronsororen *Bertso Doinutegitik* hartu dugu ia erabat (geroztik sortu diren doinu eta estrofak, noski, beste iturri batzuetatik ekarri ditugu). Corpus horretan, antzinako doinuak dira asko eta asko, eta partitura eta hitzak begien bistan edukita ere, batzuetan ez da erraz jakiten zein egitura duten, gorabeherak eta irregulartasunak agertzen baitira. Halakoekin, aski zaila izaten da behin betiko erabaki bat hartu eta egitura finkatzea.

Batzuetan, bertsoaldiaren lehen bertsoak/estrofak argibide aski ematen ez badu, hurrengoak aztertu beharko dira argi bila; edo doinu berarekin jaso izan den beste bertsoaldiren bat bilatu; edo doinu beraren aldaeraren bati erreparatu...

3. ESTROFEN EZAUGARRI TEKNIKOAK ETA IZENDAPENA

Estrofak multzoka bilduko ditugu (bost multzo egingo ditugu guk). Bost multzoetan, eskema bera erabiliko dugu:

- a) Multzo bakoitzeko estrofen **ezaugarri teknikoak** zein diren esango dugu lehenik;
- b) jarraian, **izendatzea** nola egingo dugun zehaztuko dugu;
- c) azkenik, **adibide batzuk** jarriko ditugu.

Ezaugarri teknikoen eta izendatzearen inguruan gehiago sakondu aurretik, ordea, bereizketa bat egitea komeni da.

3.1 EZAUGARRI TEKNIKOAK

Ezaugarri teknikoak diogunean, estrofen osagai aipagarrienei buruz ari gara. Estrofa multzo bakoitza aztertzen hasten garenean, beraz, ezaugarri horien berri emango dugu lehenik:

- Bertso-lerro kopurua
- Bertso-lerroen silaba kopurua eta etenak
- Bertso-lerroen silaba erregulartasuna
- Monorrimoak edo plurirrimoak diren
- Errepikak eta bihurkiak

3.2 EZAUGARRI TEKNIKOAK \neq IZENDATZEA

- **Ezaugarri teknikoak** eta izena bi gauza dira. Estrofa deskribatzerakoan, ezaugarri tekniko guztiak markatu behar dira, baina, izendatu, ezaugarri tekniko bat edo bi aintzat hartuta egin daiteke, eta hala egiten da, gainera.
- **Izendatzean**, honako baliabide hauek erabiltzea gomendatzen du Juan Mari Lekuonak, lehen aipatu dugun lanean: hiztegiaren erabilgarritasuna; usadioa (bertsolaritzak badu aski oparoa); ezaugarri tekniko nabarmenenak aipatzea; asmamen ona (ñabardura historikoei lotua egon daiteke, adibidez).

3.3 IZENDATZEA:

3.3.1 Iparraldeko eta Hegoaldeko sistemak

Estrofak izendatzerakoan, lehenik eta behin, honako berezitasun hau hartu behar da kontuan: Iparraldean eta Hegoaldean desberdin idatzi izan dira bertsoak, eta, ondorioz, desberdin izendatu. **Iparraldean, puntua hartzen dute unitate nagusitzat, eta puntu oro lerro bakarrean** emateko joera dute (puntu-lerroak erabiltzen dituzte), eta **Hegoaldean**, berriz, hemistikioa hartzen dute unitate nagusitzat, eta puntuak bi **hemistikio dituenan, hemistikio bakoitza lerro batean** idazteko joera dute; puntua, beraz, bi lerrotan emana egoten da (hemistikio-lerroak erabiltzen dituzte).

Hegoaldeko sistema

7
6A
7
6A

Iparraldeko sistema

13A
13A

Izendatzerakoan ere bi modutara egin dute: Iparraldean, puntu kopurua markatzen dute bereziki (bide batez, lerro kopurua ere bai, bat datoz-eta), eta gero bestelako xehetasunak ematen dituzte (txikia den, handia...). Hegoaldean, berriz, puntu kopurua ez, baina lerro kopurua markatzen dute bereziki, eta gainerako xehetasunak gero.

Estrofa bat bera Iparraldeko sisteman idatzi edo Hegoaldeko sisteman idatzi, itxura aski desberdina edukiko du, eta izena ere ez bietan bera. Irudi luke, beraz, bi estrofa mota ditugula begien aurrean, eta ez bakarra. Idazkera eta izena gorabehera, ordea, estrofaren ezaugarriak ez dira aldatzen: etena leku berean izango dute biek, hemistikioek silaba kopuru bera izango dute bietan, eta puntuak ere bai. Eta gainerako xehetasunak ere berdin-berdinak izango dituzte.

Bi sistemek ez dute informazio bera ematen lehen begiratuan. Lehentxeago jarri ditugun bi adibideetan ikusten da hori: Hegoaldeko sistemak hemistikioka banatzen ditu lerroak, eta puntuak zenbat silaba dituen erakusten ez badu ere, azkar egin daiteke eragiketa: oinetik oinerako lerroen silabak batu eta hortik atera dezakegu. Iparraldeko sistemak, berriz, puntuaren lerro kopurua erakusten du, baina ez etena non dagoen, eta eskema metrikoa soilik idazten denean, bestelako informaziorik ezean, nekez jakin ahal izango dugu non duen etena eta zenbat silaba dituen hemistikio bakoitzak. Horregatik, Iparraldeko sisteman idazten denean eskema metrikoa, zenbaitetan lagungarria izaten da puntu-lerro bakoitzaren aldamenean, lerro horrek etena non duen adieraztea parentesi artean. Honela:

Hegoaldeko sistema

7
6A
7
6A

Iparraldeko sistema

13A (7 / 6A)
13A (7 / 6A)

Guk bi sistemak bere horretan errespetatuko ditugu, eta aurrerantzean ere bi idazkerak/izenak egoki islatuko dituen izendatze-eredua proposatuko dugu, orain artekoari segida ematen diona, hain zuzen:

- **Iparraldeko idazkeran**, puntu kopurua markatuko dugu lehenik, eta gainerako ezaugarriak gero.
- **Hegoaldeko idazkeran**, bertso-lerro kopurua markatuko dugu, eta zenbat puntu dituen gero.

Zenbait estrofa, ordea, berdin idazten dira Iparraldean eta Hegoaldean, eta halakoetan, lerro guztiak puntu izaten dira. Hori gertatzen denean, berdin izendatuko ditugu biak: Iparraldeko ereduari jarraiki (puntu kopurua markatuz, bereziki). Berdinen sailean eta berdinen moldekoetan agertuko dira holakoak, aurrerago ikusiko dugun bezala.

3.3.2 Eskema metrikoak idazteko arauak

Zenbakiak eta letrak erabiliz emango ditugu eskema metrikoak. **Silaba kopuruak zenbakiz** eta **errimaren berri letraz** (beti letra larriak erabiliko ditugu). Zenbakiaren eta letraren artean ez dugu utziko tarterik.

Eskema metrikoak idazterakoan, bi modutara, behintzat, egin daiteke: goitik behera edo ezkerretik eskuinera. Goitik beherakoan, bertso-lerro bakoitza lerro batean emango dugu; Iparraldeko idazkeran, silaba kopurua eta errimaren ikurra joango dira lerro guztietan, eta Hegoaldeko idazkeran, puntuak bi hemistikio dituenean, lerro batzuetan zenbakia soilik joango da (silaba kopurua), eta beste lerroetan, zenbakia eta letra (silaba kopurua eta errima).

<i>Hegoaldeko sistema</i>	<i>Iparraldeko sistema</i>
10	18A
8A	18A
10	18A
8A	18A
10	
8A	
10	
8	

Eskema metrikoa soilik ematen dugunean, goiko bi adibide horietan bezala emango dugu. Testua eta egitura metrikoa, biak ematen ditugunean, bertso-lerro bakoitzaren segidan jarriko dugu egitura metrikoa. Komeni izaten da egitura metrikoari dagozkion zenbaki-letra guztiak elkarren parean geratzea, askoz ere argiago ikusten baita lehen kolpean estrofa batek zein egitura duen. Beraz, bertso-lerrorik luzeenak erabakiko du non kokatuko dugun egitura metrikoari dagokion informazioa.

Jarraian datozen bi ereduetan, adibidez, eskuinekoan argiago eta azkarrago ikusi eta barneratzen da egitura metrikoaren informazioa:

Liburu berriz dator Aresti 10A	Liburu berriz dator Aresti	10A
bertso oroz baina diruz garesti 10A	bertso oroz baina diruz garesti	10A
gain eta barne gorria guzti 10A	gain eta barne gorria guzti	10A
askotan garratz gutxitan ezti 10A	askotan garratz gutxitan ezti	10A
baina ez daukat zertan malmeti 10A	baina ez daukat zertan malmeti	10A
min dut zaigula joan urruti. 10A	min dut zaigula joan urruti.	10A

Ezkerretik eskuinera idazten ditugunean eskema metrikoak, lerro batean idatziko dugu estrofaren eskema metrikoa, bertso-lerro guztiak elkarren segidan

doazela. Bertso-lerroak elkarrengandik bereizteko, zehar-marra (/) erabiliko dugu, bi aldeetara tartea duela:

Egitura metrikoa (Hegoaldeko sistema):

10 / 8A / 10 / 8A / 10 / 8A / 10 / 8A

Egitura metrikoa (Iparraldeko sistema):

18A / 18A / 18A / 18A

3.3.3 Estrofen erregulartasuna/irregulartasuna

Estrofen erregulartasuna/irregulartasuna aintzat hartzea ere oso garrantzitsua da izendatzeko orduan.

3.3.3.1. Erregularrak

Erregularra izateak esan nahi du puntu-lerro guztiak edo hemistiko-lerro guztiak berdin datozela; alegia, beti neurri bera dutela lerro bakoiti eta bikoitiek, eta errima-hitzak beti berdin banatzen direla lerro bakoiti eta bikoitietan. Estrofa erregularren artean, honako hiru multzo hauek jarriko ditugu:

a) Handien, ertainen eta txikien multzoa: handien sailean, puntuaren lehen hemistikioak 10 silaba izaten ditu, eta bigarrenak 8 (errima-hitza beti bigarrenean joan ohi da). Ertainen sailean, puntuaren lehen hemistikioak 8 silaba izaten ditu, eta bigarrenak 7 (errima-hitza beti bigarrenean joan ohi da). Txikien sailean, puntuaren lehen hemistikioak 7 silaba izaten ditu, eta bigarrenak 6 (errima-hitza beti bigarrenean joan ohi da).

b) Berdinen multzoa: bertso-lerro guztiek silaba kopuru bera izaten dute; bertso-lerro horiek puntu-lerro direnean, eta bi hemistikiotan banatzen direnean, bi hemistikio horiek ere silaba kopuru bera izan behar dute (Iparraldeko sisteman idatzitako estrofentzat balio du ohar horrek).

c) Koplen multzoa: nagusiki puntu laburrak erabiltzen dituen ere-dua deituko dugu koplak, eta **puntu luzea behin bakarrik** erabiltzen duena. Ezaugarri tekniko zehatz horiek dituzten estrofa soilik deituko ditugu koplak. Koplen multzoan, hiru koplak mota agertuko zaizkigu: koplak handiak (8A / 8A / 10 / 8A Hegoalderantz eta 8A / 8A / 18A Iparralderantz), koplak ertainak 7A / 7A / 8 / 7A Hegoalderantz eta 7A / 7A / 15A Iparralderantz) eta koplak txikiak (6A / 6A / 7 / 6A Hegoalderantz eta 6A / 6A / 13A Iparralderantz).

3.3.3.2. Irregularrak

Estrofa irregularra bada, bi multzo egingo ditugu:

- a) Molde bati jarraitzen diotenak, batetik, **molde askotarikoak** deitzen ditugunak.
- b) **Erabat irregularrak** direnak (bereziak).

a) Molde askotarikoak:

Multzo honetan, lehen esan dugu, molde bati jarraitzen dioten estrofa sartu ditugu. Beste estrofa batzuen moldera eginak dira, estrofa erregularren moldera eginak, hain zuzen. Batzuk handiaren moldekoak izango dira, ertainaren moldekoak besteak, txikiaren moldekoak beste batzuk, eta berdinen moldekoak beste zenbait. Horiez gain, koplata mota baten moldekoak ere izango dira. Estrofa batek handiaren / ertainaren / txikiaren / berdinen moldea duela esateko, edo koplata mota jakin baten moldekotzat jotzeko, eskema metrikoa, nagusiki, handiarena, ertainarena, txikiarena, berdina edo koplarena izango du, eta, tartean, eskema metriko nagusi hori apurtzen duen salbuespenen bat: gerta daiteke bakoiti eta bikoiti guzti-guztiek ez edukitzea neurri bera, edo errima-hitza ez berdina banatzea lerro bakoiti eta bikoitietan.

- Adibidez:

Handiaren moldekoa:

Hegoaldeko sistema

Bazterretik bazterrerat	8
oi munduaren zabala	8A
ez dakienak erran lirozu	10
ni alegera nizala	8A
hortzetan dizut irria eta	10
bi begietan nigarra.	8A

Iparraldeko sistema

Bazterretik bazterrerat oi munduaren zabala	16A
ez dakienak erran lirozu ni alegera nizala	18A
hortzetan dizut irria eta bi begietan nigarra.	18A

Lehen puntuko lehen hemistikioan izan ezik, gainerakoan handiaren egitura du estrofa horrek: puntu bakoitzaren lehen hemistikioan hamar silaba, bigarren zortzi silaba, eta errima-hitza hemistikio bikoitietan.

Hegoaldeko sistema

Bazkaltzean gogoa neukan	9
baita Kamiltxo jateko	8A
eta mahai gaineko loreak	10
ensaladakin nahasteko	8A
asko dago jokatzeko ta	9
asko dago jolasteko	8A
bide erdiak balio beza	10
erdibideak hausteko.	8A

Iparraldeko sistema

Bazkaltzean gogoa neukan baita Kamiltxo jateko	17A
eta mahai gaineko loreak ensaladakin nahasteko	18A
asko dago jokatzeko ta asko dago jolasteko	17A
bide erdiak balio beza erdibideak hausteko.	18A

Estrofa horretan, lehen puntuan eta hirugarrenean hausten da erregularitasuna, baina, gainerakoan, handikoaren egitura du bete-betean: hemistikio erri-madun guztiek betetzen dute araua, eta errimagabeek ere ez dute gorabehera handirik.

Ertainaren moldekoa:*Hegoaldeko sistema*

Basoilarrak kantatzen dizu	9
Iratiko soruan	7A
ihurk e'lezakezu pentsa	9
nik zer dudan goguan	7A
gaüak oro iragaiten'tut	9
maitearen onduan.	7A

Iparraldeko sistema

Basoilarrak kantatzen dizu	Iratiko soruan	16A
ihurk e'lezakezu pentsa	nik zer dudan goguan	16A
gaüak oro iragaiten'tut	maitearen onduan.	16A

Honako honetan, puntuen lehen hemistikioek ertainaren neurrikoek baino silaba bat gehiago dute, baina bigarren hemistikio guztiek erregulariki jarraitzen diote ertainaren egiturari: zazpi silaba dituzte, eta errimadunak dira. Ertainaren moldekotzat jotzeko aski arrazoi bada hori.

Txikiaren moldekoa:*Hegoaldeko sistema*

Han ez dau balioko	7
gaiztakeriak	5A
ezpabeze bakarrik	7
egi garbiak	5A
ordu larriak	5A
han damutuko jakoz	7
gaiztakeriak.	5A

Iparraldeko sistema

Han ez dau balioko gaiztakeriak	12A
ezpabeze bakarrik egi garbiak	12A
ordu larriak	5A
han damutuko jakoz gaiztakeriak.	12A

Estrofa hau, itxuraz, ez dirudi txikiaren moldekoa denik, baina, gorabeherak gorabehera, sail horretan sailkatzekoa da inon sailkatzekotan (berezitat jotzeko baino erregularragoa da, izan ere). Hemistikio errimagabeak txikikoen neurrikoak ditu, eta puntu guztien bigarren hemistikoa errimaduna du (nahiz eta txikikoek baino silaba bat gutxiago eduki, guztiak ditu neurri berekoak eta, beraz, erregularrak). Berezitasunik nabarmenena hirugarren puntukoa du: beste puntu guztiak ez bezala, hemistikio bakarrekoa da (neurrian bat dator beste guztiekin). Ukitu berezia ematen dio puntu-lerro motz horrek, baina estrofa ez du askorik aldentzen txikiaren moldetik.

Berdinaren moldekoa:

Hegoaldeko sistema

Aresoarren bandera	8A
ai nolakoa ote da	8A
erakustera eraman dute	10
erreka aldera	6A
gero Leitzarrak bidera	8A
zorionak ematera	8A
[ahal zuenak arin joan ziran	10
igeri egitera]. (bis)	6A

Iparraldeko sistema

Aresoarren bandera	8A
ai nolakoa ote da	8A
erakustera eraman dute erreka aldera	16A
gero Leitzarrak bidera	8A
zorionak ematera	8A
[ahal zuenak arin joan ziran igeri egitera].(bis)	16A

Berdinaren multzoan bertso-lerro guztiak neurri berekoak izaten direla esan dugu. Goiko estrofa horretan ez da gorabeherarik falta alde horretatik, baina hemistikioei erreparatuz gero, ildo erregularxeago bat antzematen zaio: hemistikio errimadun gehienak 8 silabakoak ditu. Estrofa honek handiaren molde batzuk ere baditu, baina gehiago hausten du handiaren moldea, berdine-na baino. Berezien multzoan sartzeko, berriz, erregular samarra da.

la gureak egindu	8A
badegu zeinek agindu	8A
ez oraindik umildu	7A
elkarrengana bildu	7A
gerra nahi duen guzia	8B
berari kendu bizia.	8B

Estrofa honek ere berdinaren moldeari jarraitzen dio, zalantza handirik gabe. Tarteko bi puntuak motzagoak ditu, baina berdinaren moldekotzat jotzekoa da. Plurirrimoa da, baina horrek ez du eraginik sailkapen nagusian.

Kopla handiaren moldekoa:

<i>Hegoaldeko sistema</i>		<i>Iparraldeko sistema</i>	
Agur-agur otsoa	7A	Agur-agur otsoa	7A
ongi etorri astoa	8A	ongi etorri astoa	8A
nik hiretzako bazekarreat	10	nik hiretzako bazekarreat zagian ardo gozoa.	18A
zagian ardo gozoa.	8A		

Koplaren egitura dauka estrofa horrek (puntu laburrak nagusi eta luze bakarra), eta neurrietan, kopla handiaren moldera hurbiltzen da. Horrexegatik joko genuke kopla handiaren moldekotzat.

<i>Hegoaldeko sistema</i>		<i>Iparraldeko sistema</i>	
Haltzak ez du bihotzik	7A	Haltzak ez du bihotzik	7A
ez gaztanberak hezurrik	8A	ez gaztanberak hezurrik	8A
[ez nian uste erraiten ziela	11	[ez nian uste erraiten ziela aitunen semek gezurrik].(bis)	19A
aitunen semek gezurrik]. (bis)	8A		

Estrofa hori ere kopla da funtsean (gure definizioaren arabera), eta neurritz, handiaren moldekoa, bere gorabeherekin.

Kopla ertainaren moldekoa:

<i>Hegoaldeko sistema</i>		<i>Iparraldeko sistema</i>	
Utz zan, utz zan ixilik	7A	Utz zan, utz zan ixilik	7A
horrek ez din dirurik	7A	horrek ez din dirurik	7A
boltsa zahar bat hor diaraman	10	boltsa zahar bat hor diaraman zorri zuriz beterik.	17A
zorri zuriz beterik.	7A		

Estrofa horretan ere, hemistikio luzeak apurtzen ditu kopla ertainaren neurriak; gainerakoan, ordea, garbi dago eredu horri jarraitzen diola.

Kopla txikiaren moldekoa:

<i>Hegoaldeko sistema</i>		<i>Iparraldeko sistema</i>	
Gazte nintzanian	6A	Gazte nintzanian	6A
denbora batian	6A	denbora batian	6A
maitia ez nintzan kotsolatzen	10	maitia ez nintzan kotsolatzen ezkondu artian.	16A
ezkondu artian.	6A		

Hemistikio luzeak apurtzen ditu kopla txikiaren neurriak, baina haren moldekoa da.

b) Erabat irregularrak (bereziak):

Erabat irregularrak direnak sartuko ditugu bigarren multzo honetan, hau da, molde jakin bati jarraitzen ez diotenak. Erregularitasunik ez dute ageri izaten, eta, ondorioz, berezizat hartuko ditugu. Hona hemen adibide batzuk:

Hegoaldeko sistema

Iragan besta biharamunian	10A
berek dakiten txoko batian	10A
lau andre hirur mutxurdin	8
bat alarguna jarriak itzalian	12A
harri zabal bat belaunen gainian	11A
ari ziren ari ziren trukian.	11A

Iparraldeko sistema

Iragan besta biharamunian	10A
berek dakiten txoko batian	10A
lau andre hirur mutxurdin bat alarguna jarriak itzalian	20A
harri zabal bat belaunen gainian	11A
ari ziren ari ziren trukian.	11A

Estrofa horrek, neurri aldetik, behintzat, ez du erregularitasunik. Gehien, berdinarean moldekoei hurbiltzen zaie, baina horietatik ere aski urrun geratzen da. Errima-hitzen banaketan sistematikoagoa da, neurrietan baino, nahiz eta hemistikio errimagabe hori tartekatzeak apurto egiten duen batasuna.

Hegoaldeko sistema

Beste idazlan batek	7
karroxa zor du	5A
liburu zuriak du	7
gaur bere ordu	5A
ezin ertenik lazoan	8B
arrazoi onak auzoan	8B
zelebre gabiltz zelebre	8
euskal arazoan.	6B

Iparraldeko sistema

Beste idazlan batek karroxa zor du	12A
liburu zuriak du gaur bere ordu	12A
ezin ertenik lazoan	8B
arrazoi onak auzoan	8B
zelebre gabiltz zelebre euskal arazoan.	14B

Estrofa horrek hainbat molde ageri ditu nahasian: txikiaren moldea du lehen bi puntuetan, berdinarena tarteko bietan, eta txikiarena azkenekoan. Berezizat jo beharrekoa da hori ere.

3.3.4 Gertaera berezi batzuk

Izendatzearekin bukatzeko, azkenik, kontuan hartu behar diren beste zenbait gertaera berezi zerrendatuko ditugu, horiek ere eragina izaten baitute:

- a) Errepika
- b) Barne-errepika
- c) Barne-errima
- d) Bihurkiak: egitura besarkatuak eta gurutzatuak
- e) Errepika-makulua

a) Errepika:

Errepika guztiak ez dira berdinak. Gaur egungo erabileran, errepika aipatzen denean, bertsoaren bukaerari buruzko aipamena izaten da, **azken puntua edo azken hemistikioa errepikatua** duten doinuei buruzkoa, gehienbat. Edukia errepikatzen da halakoetan, eta melodia/notak ere bai maiz. Errepika horien helburua izan daiteke esandakoa indartzea, edo ikus-entzuleei keinu egitea, eta abar. Horiei guztiei **errepikadun** deituko diegu. Errepikatzen den zatia parentesi karratuen [] artean sartuko dugu.

- Adibidez:

Hegoaldeko sistema

Arratsalde on lehendabizitik	10
entzule zahar ta gazte	8A
zuek patxaran gu urduriak	10
badago nahiko kontraste	8A
milagrorikan egiterikan	10
nik behintzat gaur ez det uste	8A
[gutxinez ere egingo ahal det	10
bazkalaurretik hainbeste]. (bis)	8A

Iparraldeko sistema

Arratsalde on lehendabizitik entzule zahar ta gazte	18A
zuek patxaran gu urduriak badago nahiko kontraste	18A
milagrorikan egiterikan nik behintzat gaur ez det uste	18A
[gutxinez ere egingo ahal det bazkalaurretik hainbeste]. (bis)	18A

Hegoaldeko sistema

Larrosak dira gorriak	8A
edo bestelan xuriak	8A
hagitzez dira ederragoak	10
[neskatilaren irriak].(bis)	8A

Iparraldeko sistema

Larrosak dira gorriak	8A
edo bestelan xuriak	8A
hagitzez dira ederragoak [neskatilaren irriak]. (bis)	18A

b) Barne-errepika

Beste batzuetan, **bertso barruan errepikatzen da bertso-lerro edo hemistikioen bat**. Horiei **barne-errepikadun** deituko diegu. Errepika horiek, batzuetan, esandakoa indartzea edo azpimarratzea izango dute helburu. Horietan ere, parentesi karratuekin adieraziko dugu zein zati errepikatzen den.

- Adibidez:

Hegoaldeko sistema

Orbelak airez aire	7
[ifartxo dultzia] (bis)	6A
landamintz ederretik	7
[doian errekia]. (bis)	6A

Iparraldeko sistema

Orbelak airez aire [ifartxo dultzia] (bis)	13A
landamintz ederretik [doian errekia]. (bis)	13A

Beste batzuetan, bestelako intentzioa eduki dezake errepika horrek (estilizazioaren bidetik, jolasaren bidetik...):

- Adibidez:

Hegoaldeko sistema

Bautista Bazterretxe	7
mutiko pijua	6A
[neri gurdi ardatza] (bis)	7
gurdi ardatza neri]	
ostuta dijua	6A
beltzak eta txuriak	7
izango dituzu	6B
[neri gurdi ardatza] (bis)	7
[gurdi ardatza neri]	
emate´ez baidazu.	6B

Iparraldeko sistema

Bautista Bazterretxe mutiko pijua	13A
[neri gurdi ardatza] ostuta dijua (bis)	13A
[gurdi ardatza neri]	
beltzak eta txuriak izango dituzu	13B
[neri gurdi ardatza] emate´ez baidazu. (bis)	13B
[gurdi ardatza neri]	

Hegoaldeko sistema

Kasik hamalau urte	7
ez dago hurbila	6A
hotz baten ohantzera	7
hura zakur pila	6A
iparrera joan zinen	7
izu ta isila	6A
geroztik esperantza	7
zurekin dabila	6A
[iparrera joan zinen	
izu ta isila]	
iparralderago den	7
askatasun bila.	6A

Iparraldeko sistema

Kasik hamalau urte ez dago hurbila	13A
hotz baten ohantzera hura zakur pila	13A
iparrera joan zinen izu ta isila	13A
geroztik esperantza zurekin dabila	13A
[iparrera joan zinen izu ta isila]	
iparralderago den askatasun bila.	13A

c) Barne-errima

Gerta daiteke, puntutik punturako ohiko errimaz gain, bestelako hoskidetasun batzuk ere agertzea estrofaren barruan. Hoskidetasun horiei ere errimaren balioa emateko, modu sistematikoan eginak izan beharko dute. Halakoak gertatzen direnean, estrofa hori barne-errimaduna dela esango dugu.

Hegoaldeko sistema

Bere bizitza –bertsolaritza- hauspotzen sendo aritu	10 8A
txokorik txoko , traba- oztopo bertso paperak aurkitu	10 8A
ta memoria , herri- historia bildu ta bildu jarraitu	10 8A
dagoeneko lan horrek lepo frutuak ematen ditu	10 8A
Zavalarenak, zabala denak , denok aberasten gaitu.	10 8A

Iparraldeko sistema

Bere bizitza –bertsolaritza- hauspotzen sendo aritu	18A
txokorik txoko , traba- oztopo bertso paperak aurkitu	18A
ta memoria , herri- historia bildu ta bildu jarraitu	18A
dagoeneko lan horrek lepo frutuak ematen ditu	18A
Zavalarenak, zabala denak , denok aberasten gaitu.	18A

d) Bihurkiak: egitura besarkatuak eta gurutzatuak

Zenbait estrofa plurirrimok, txandakatu egiten dituzte errimak, eta baliabide horiei deitzen diegu bihurki. **Errimak txandakatzeko** moduak bat baino gehiago dira. Estrofa batzuek, adibidez, honako egitura hau eduki dezakete:

13A / 13B / 13B / 13A (Iparraldeko sisteman idatzia dago).

Egitura horiei **besarkatuak** deituko diegu (Juan Mari Lekuonaren ildotik).

Beste estrofa batzuetan, errimak gurutzatu egiten dira:

7A / 6B / 7A / 6B / 7C / 6D / 7C / 6D

Egitura horiei, beraz, **gurutzatuak** deituko diegu.

- Adibidez:**Besarkatua:**

Zu ez zarenean dena	8A
izan al ninteke ezer	8B
ez nezakeenean uler	8B
sentitzen ari naizena	8A
zer da egin behar dena	8A
dena bukatu ondoren	8C
erdibitzear zegoen	8C
mundu batetik bi <i>mundu</i>	8D
erditu eta <i>urrundu</i>	8D
zatitan lehertu baino lehen .	8C

Gurutzatua:

Itsasoa laino dago	8A
Baionako <i>barraraino</i>	8B
nik zu zaitut maiteago	8A
txoriak beren umeak <i>baino</i> .	8B

e) Errepika-makuluak:

Zenbaitetan, esaldi errepikatu bat izaten du estrofa tartean, makulu moduko bat, diskurtsoaren lagungarri edo indargarri. Makulu hori, batzuetan, hitzez osatua egongo da, eta beste batzuetan, hitz jakinik gabe abestuko da doinua. Horiei, **makuludunak** deituko diegu. Sail horretakoak dira, adibidez, *Dama gazte xarmant bat* izeneko doinua eta *Ikusi nuenean* izeneko:

- Adibidez:*Hegoaldeko sistema*

Dama gazte xarmant bat	7
jiten zaut bixtara	6A
iduritzen baizeraut	7
zeruko izarra	6A
ama batek hazteko	7
hori zerbait bada	6A
gure salbatzaileak	7
kontserba dezala.	6A
<i>trala-lara-tralara</i>	
<i>kontserba dezala</i>	

Iparraldeko sistema

Dama gazte xarmant bat jiten zaut bixtara	13A
iduritzen baizeraut zeruko izarra	13A
ama batek hazteko hori zerbait bada	13A
gure salbatzaileak kontserba dezala.	13A
<i>trala-lara-tralara kontserba dezala</i>	

Hegoaldeko sistema

Ikusi nuenean	7
zure ile latza	6A
iruditu zitzaidan <i>maitia</i>	7
sorginen erratza.	6A

Iparraldeko sistema

Ikusi nuenean zure ile latza	13A
iruditu zitzaidan <i>maitia</i> sorginen erratza.	13A

3.3.5 Estrofak idazteko arauak

Bertsolaritzan, orain artean, *neurria* terminoaren pean eman izan dira bertso-estrofei buruzko xehetasunak. Hitzak berak dioen bezala, batik bat bertso-estrofaren alderdi neurgarriak edo kuantitatiboak jaso izan ditu izendapen horrek: silaba eta puntu kopurua, eta errimaren maiztasuna (azken hori ez beti, gainera). **Bertso-estrofeak**, ordea, **alderdi kuantitatiboak** ez ezik, **kualitatiboak** ere badituzte, eta horien guztien berri emango duen izendatze sistema bilatu nahi izan dugu.

Horrexegatik, bi zatitan emango dugu estrofa ororen izena. Lehenik, **Estrofaren izena** deitzen den atala joango da, eta gero, **Xehetasun aipagarriak**, eta bi-biak biribilez idatzita, ez letra etzanarekin.

Estrofaren izena deitu dugun atalean, estrofaren izen nagusia jarriko dugu, eta lerro, puntu eta silaba kopuruari buruzko informazioa bilduko dugu. Ikus litekeen bezala, **Estrofaren izena** atalean, orain arte **Neurria** terminoarekin adierazi izan diren ezaugarriak ematen ditugu. Beraz, biak baliokidetzat jotzen ditugu.

Hegoaldeko sistema

Pasaiako plazatik	7
dator notizia	6A
zezen bat atera da	7
jenioz bizia	6A
kantatutzera noa	7
bistan ikusia	6A
konsolatzeko triste	7
dagoen guzia.	6A

Iparraldeko sistema

Pasaiako plazatik dator notizia	13A
zezen bat atera da jenioz bizia	13A
kantatutzera noa bistan ikusia	13A
konsolatzeko triste dagoen guzia	13A
Estrofaren izena: Lau puntuko txikia.	

Estrofaren izena: Zortziko txikia.

Estrofa erregularrak izendatzerakoan, **letrak** idatzita soilik egingo dugu **handiaren, ertainaren eta txikiaren multzoan**, eta **Koplaren multzoan**: Zortziko handia / Lau puntuko handia, Lauko ertaina / Bi puntuko ertaina, Kopla txikia... **Berdinaren multzoan**, berriz, **letrak eta zenbakiak** emango dugu izena: lerroei buruzko informazioa letraz (izenaren lehen zatia, alegia), eta puntuei eta silabei dagokiena zenbakiz (lehenik puntuak, eta silabak gero:

Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz / Zortzi puntuko berdina, 8 silabaz; Sei puntuko berdina, 8 silabaz; Zortziko berdina, 6 puntuz eta 8 silabaz / Sei puntuko berdina, 8 silabaz...

Mehetegiko xakurra	8A
zangoz errainez makurra	8A
berga bat luze muturra	8A
larrutik hurbil hezurra	8A
urte guzian barura	8A
zeren den toki xuhurra.	8A

Estrofa izena: Sei puntuko berdina, 8 silabaz.

Estrofa irregularretan, berriz, letrak eta zenbakiak erabiliko ditugu: lerroei buruzko informazioa letraz (izenaren lehen zatia, alegia), eta puntuei eta silabei dagokiena zenbakiz (lehenik puntuak, eta silabak gero: Hamalaukoa, molde txikia, 9 puntuz...).

Izan niz Barkoxen	6A
kusinaren etxen	6A
ahunaki jaten	6A
segurki ikun baizen	6A
saheskiak errerik	7B
buruak egosirik	7B
ardoa goxorik	6B
ogia beratxik	6B
han ez zen deus mentsik	6B
maitea zu baizik.	6B

Estrofa izena: Hamarrekoa, berdinen moldekoa, 10 puntuz.

Xehetasun aipagarriak deitu dugun atalean, estrofa dituen beste berezitasunen berri emango dugu: monorrimoa edo plurirrimoa den, bihurkirik baduen, errepikarik baduen, errepika-makulurik baduen. Beti hurrenkera horretan emango ditugu.

Hegoaldeko sistema

Deungak dabiltz gaur munduan	8A
eurak nahi daben moduan	8A
honai guztiai hil ta biziai	10
onei al dabena ostuten	8B
ta harei famia kenduten. (bis)	8B

Estrofa izena: Bostekoa, berdinen moldekoa, 4 puntuz.

Xehetasun aipagarriak: Plurirrimoa, errepikaduna.

Iparraldeko sistema

Deungak dabiltz gaur munduan	8A
eurak nahi daben moduan	8A
honai guztiai hil ta biziai onei al dabena ostuten	18B
ta harei famia kenduten. (bis)	8B

Estrofa izena: Lau puntukoa, molde berdina.

Xehetasun aipagarriak: Plurirrimoa, errepikaduna.

4. MULTZOAK

Esan bezala, estrofa multzoka bilduko ditugu, bost multzotan, hain zuzen. Jarraian, multzo bakoitza banan-banan aztertuko dugu, lehen aipatu dugun eskemari jarraiki: ezaugarri teknikoak, izendatzea eta adibideak.

Bost multzo bereizi ditugu:

- I. multzoa: handi, ertain eta txikiak
- II. multzoa: berdinak
- III. multzoa: koplak
- IV. multzoa: molde askotarikoak
- V. multzoa: bereziak

4.1. I. MULTZOA

Handien, ertainen eta txikien multzoa da (zortziko handia, ertaina, txikia...). Hiru eredu sartu ditugu multzo bakarrean, guztiz erregularrak hirurak ere. Hemistikioen silaba kopurua soilik aldatzen da eredu batetik bestera (eta, ondorioz, puntuen silaba kopurua ere bai).

Handien eredukoek 10 silabakoa dute lehen hemistikioa, eta 8 silabakoa bigarrena. Eredu horretan, lehen hemistikioak ere izaten du barne-etena egitura asko eta askotan (5+5 egiten dira silabak).

Ertainen ereduan, 8 silabakoa da lehen hemistikioa, eta 7 silabakoa bigarrena (eredu honek bestelako izen batzuk ere hartu izan ditu, hala nola, zaharra edo klasikoa).

Txikien ereduan, azkenik, 7 silaba ditu lehen hemistikioak eta 6 bigarrenak.

- Ezaugarri teknikoak: lerro jakinak ditu, isosilabikoak puntutik puntu-
ra, hemistikio desberdinak eta monorrimoak oro har.

- Izendatzea: bi ezaugarri hartzen dira kontuan. Batetik, lerro kopurua (Hegoaldean, hemistikio-lerro kopurua eta Iparraldean, puntu-lerro kopurua), eta, bestetik, hemistikio bakoitzaren edo puntuaren silaba kopurua (7 / 6A edo 13A txikian, eta abar).

Hegoaldeko sistema

Elikatzen gaituzu zure ugatzetan	7
sorterririk gabeko desordu latzetan.	6A
	7
	6A

Iparraldeko sistema

Elikatzen gaituzu zure ugatzetan	13A
sorterririk gabeko desordu latzetan.	13A

Estrofa izena : Bi puntuko txikia.

Estrofa izena: Lauko txikia.

Hegoaldeko sistema

Eguneroko bizitza baten atzoa, gaurra, biharra	10
beti berdina ote da edo soilik antzeko xamarra	8A
leiho batetik ikusten al da bizitzaren ikusmira	10
[edo bizitza ote daukagu beste aldetik begira]. (bis)	8A
	8B
	10
	8B

Iparraldeko sistema

Eguneroko bizitza baten atzoa, gaurra, biharra	18A
beti berdina ote da edo soilik antzeko xamarra	18A
leiho batetik ikusten al da bizitzaren ikusmira	18B
[edo bizitza ote daukagu beste aldetik begira]. (bis)	18B

Estrofa izena: Lau puntuko handia.

Xehetasun aipagarriak: Plurirrimoa, errepikaduna.

Estrofa izena: Zortziko handia.

Xehetasun aipagarriak: Plurirrimoa, errepikaduna.

Hegoaldeko sistema

Atea zeharkatuta orain heltzen ari da	8
bere irripar horrekin beti gatibatzen nau	7A
hemen ez banitz bezala jarri nahi dut begira	8
agian irudimenak [aldatu dezake hau] (bis)	7B
nireganaino etortzen urteak joan dira	8
zure irria ez da joan baina min honek dirau.	7A
	8
	7B

Iparraldeko sistema

Atea zeharkatuta orain heltzen ari da	15A
bere irripar horrekin beti gatibatzen nau	15B
hemen ez banitz bezala jarri nahi dut begira	15A
agian irudimenak [aldatu dezake hau] (bis)	15B
nireganaino etortzen urteak joan dira.	15A
zure irria ez da joan baina min honek dirau.	15B

Estrofa izena: Sei puntuko ertaina.

Xehetasun aipagarriak: Plurirrimoa, gurutzatua, barne-errepikaduna.

Estrofa izena: Hamabiko ertaina.

Xehetasun aipagarriak: Plurirrimoa, gurutzatua, barne-errepikaduna.

Hegoaldeko sistema

Zer diozu "nik maite zaitut" esatean	7
ez zaudenean nire besoen artean	6A
nik maite zaitudala sinetsi nahi nuke	7
halako egoerek azkenik guk uste baino askoz gehiago eragiten dute	6B
errutinaren menpe gabiltz bitartean inora ez daraman harreman batean.	7
	6A

Iparraldeko sistema

Zer diozu "nik maite zaitut" esatean	13A
ez zaudenean nire besoen artean	13A
nik maite zaitudala sinetsi nahi nuke	13B
halako egoerek azkenik guk uste baino askoz gehiago eragiten dute	13B
errutinaren menpe gabiltz bitartean inora ez daraman harreman batean.	13A
	13A

Estrofaren izena: Hamabiko txikia.
Xehetasun aipagarriak: Plurirrimoa, besarkatua.

Estrofaren izena: Sei puntuko txikia.
Xehetasun aipagarriak: Plurirrimoa, besarkatua.

4.2. II. MULTZOA

Berdinen multzoa da. Multzo honen berezitasuna zera da: **hemistikio guztiek silaba kopuru bera** dute. Eta hemistikio guztiak berdinak direlako deitzen zaio berdinen multzoa.

- **Ezaugarri teknikoak:** lerro jakinak ditu, isosilabikoak puntutik puntu-ra, hemistikio berdinak silabaz eta monorrimoak, oro har.

- **Izendatzea:** lerro guztiek silaba kopuru bera dutenez, horixe markatzen da, berdinak direla. Horrez gain, hemistikioen silaba kopurua adieraziko dugu eta puntu kopurua ere bai (Hegoaldeko sisteman). Hemen ere, Iparraldea eta Hegoaldea desberdin dabilta zenbaitetan, eta bakoitzak badu bere sistema. Baina beti ez dabilta bakoitza beretik. Jarraian datoren testu honetan, puntu laburrak direnez, hemistikiorik ez da bereizten puntu barruan, eta ho-rrelakoetan, berdin idazten dira Iparraldean eta Hegoaldean, eta, ondorioz, berdin izendatu, Iparraldeko ereduari jarraiki:

Mehetegiko xakurra	8A
zangoz errainez makurra	8A
berga bat luze muturra	8A
larrutik hurbil hezurra	8A
urte guzian barura	8A
zeren den toki xuhurra.	8A

Estrofaren izena: Sei puntuko berdina, 8 silabaz.

Jarraian ageri den testuan, puntuak bi hemistikio ditu, eta horrelakoetan, desberdin jokatzen da Iparraldean eta Hegoaldean. Desberdin idazten da, eta desberdin izendatzen:

Hegoaldeko sistema

Zatoz zintzoen barnera	8
espiritu sortarazle	8A
bete graziaz bihotzak	8
zu baizaituzte egile.	8A

Estrofaren izena: Lauko berdina, 8 silabaz eta 2 puntuz.

Iparraldeko sistema

Zatoz zintzoen barnera	espiritu sortarazle	16A
bete graziaz	bihotzak zu baizaituzte egile.	16A

Estrofaren izena: Bi puntuko berdina, 16 silabaz.

4.3. III. MULTZOA

Koplen multzoa deituko dugu.

- **Ezaugarri teknikoak:** Ierro jakinak ditu (lau Hegoaldean, hiru Iparraldean), anisosilabikoak, monorrimoa.

- **Izendatzea:** Kopla terminoak euskal usadioan badu esanahi jakina (eske-bertsoetarako modulua, erromerietakoa...), eta Iparraldean esanahi orokorragoa du (koblakaria). Guk oso erabilera zehatza eman-go diogu termino horri: nagusiki puntu laburrak erabiltzen dituen eredu-ua deituko dugu kopla, eta hemistikio luzea behin bakarrik erabiltzen duena. Ezaugarri tekniko zehatz horiek dituzten estrofak soilik deituko ditugu kopla. Iparraldean eta Hegoaldean berdin izendatuko ditugu, nahiz eta bakoitzak bere erara idatzi.

Hegoaldeko sistema

Hor goian etxea	6A
jo daigun atea	6A
gizonak bentanara	7
nekez irtetzea.	6A

Estrofaren izena: Kopla txikia.

Iparraldeko sistema

Hor goian etxea	6A	
jo daigun atea	6A	
gizonak bentanara	nekez irtetzea.	13A

Estrofaren izena: Kopla txikia.

Hegoaldeko sistema

Gorroto sentimendu bat guduan mantendu	7A
jainkoek ezin dutena pertsonak egiten du.	7A

Estrofaren izena: Kopla ertaina.*Iparraldeko sistema*

Gorroto sentimendu bat guduan mantendu	7A
jainkoek ezin dutena pertsonak egiten .	15A

Estrofaren izena: Kopla ertaina.*Hegoaldeko sistema*

Eder zeruan izarra errealdian lizarra etxe hontako nagusi jaunak urre gorritz du bizarra.	8A
	8A
	10
	8A

Estrofaren izena: Kopla handia.*Iparraldeko sistema*

Eder zeruan izarra errealdian lizarra etxe hontako nagusi jaunak urre gorritz du bizarra.	8A
	8A
	18A

Estrofaren izena: Kopla handia.**4.4. IV. MULTZOA**

Neurri askotarikoen multzoa da. Estrofa irregularrak dira, baina molde bati jarraitzen diote: handiaren moldeari, ertainaren moldeari, txikiari, berdinari edo kopla mota jakin baten moldeari.

- **Ezaugarri teknikoak:** lerro jakinak ditu, anisosilabikoak puntutik puntura, ez beti erregularrak lerro bakoiti eta bikoitien silaba kopuruan eta errima-hitzen banaketan, baina molde baten arabekoak, nagusiki (handiaren / ertainaren / txikiaren / berdinen / kopla mota jakinaren moldekoa). Monorrimoak zein plurirrimoak izan daitezke.

- **Izendatzea:** Hegoaldeko sisteman lerro kopurua markatuko dugu lehenik, eta ondotik, zein moldetakoa den esango dugu (handiaren moldekoa, ertainaren moldekoa, txikiaren moldekoa, berdinen moldekoa, kopla jakin baten moldekoa) eta zenbat puntu dituen adieraziko dugu (berdinen moldekoetan, silaba kopurua ere bai). Iparraldeko sisteman, puntu kopurua markatuko dugu lehenik, eta ondotik, moldea (berdinen moldekoetan, silaba kopurua ere bai).

Hegoaldeko sistema

Maitasuna da bizi izateko ardatz eta oinarria	10
jakin dedanez hark ba omen du orain maitale berria	8A
nik ez nekien, jakinen gainen omen zegoen herria	10
garai batean irria	8A
[orain malko iturria] (bis)	10
ezkondu eta ase nahi nuen maitasunan egarria	8A
orain horrela egon beharra [bai dala penagarria]. (bis)	10
	8A

Estrofaren izena: Hamabikoa, handiaren moldekoa, 7 puntuz.

Xehetasun aipagarriak: Errepikaduna.

Iparraldeko sistema

Maitasuna da bizi izateko ardatz eta oinarria	18A
jakin dedanez hark ba omen du orain maitale berria	18A
nik ez nekien, jakinen gainen omen zegoen herria	18A
garai batean irria	8A
[orain malko iturria] (bis)	8A
ezkondu eta ase nahi nuen maitasunan egarria	18A
orain horrela egon beharra [bai dala penagarria]. (bis)	18A

Estrofaren izena: Zazpi puntukoa, handiaren moldekoa.
Xehetasun aipagarriak: Errepikaduna.

Hegoaldeko sistema

Itsaso hori dago zatarra	10A
nire oihua eta negarra	10A
untzi bat horra non azaltzen den [nik behar nuen izarra] (bis)	10
oraintxe sartu zait arra	8A
berriz piztutzeko garra	8A
baina hau da zoritxarra	8A
ikusi naute aurrean eta hau hau destino baldarra	10
laguna ondotik pasatu eta [nik hemen ito beharra].(bis)	8A

Estrofaren izena: Hamaikakoa, handiaren moldekoa, 8 puntuz.
Xehetasun aipagarriak: Errepikaduna.

Iparraldeko sistema

Itsaso hori dago zatarra	10A
nire oihua eta negarra	10A
untzi bat horra non azaltzen den [nik behar nuen izarra](bis)	18A
oraintxe sartu zait arra	8A
berriz piztutzeko garra	8A
baina hau da zoritxarra	8A
ikusi naute aurrean eta hau hau destino baldarra	18A
laguna ondotik pasatu eta [nik hemen ito beharra]. (bis)	18A

Estrofaren izena: Zortzi puntukoa, handiaren moldekoa.
Xehetasun aipagarriak: Errepikaduna.

Hegoaldeko sistema

Ostegun joan danian hamabost Hernanin	7
betroi baten tratua genuen egin	6A
Inazio saltzaile erostuna Fermin	7
hemeretzi ezkutu genion eragin	5A
sabelian du min inork ase ezin artuari muzin	7
ez du nahi edozin [atzetik behar ditu zazpi medezin]. (bis)	6A
	6A
	6A
	6A
	6A
	6A
	7
	5A

Estrofaren izena: Hamalaukoa, txikiaren moldekoa, 9 puntuz.
Xehetasun aipagarriak: Errepikaduna.

Iparraldeko sistema

Ostegun joan danian hamabost Hernanin	13A
betroi baten tratua genuen egin	12A
Inazio saltzaile erostuna Fermin	13A
hemeretzi ezkutu genion eragin	13A
sabelian du min	6A
inork ase ezin artuari muzin	6A
ez du nahi edozin [atzetik behar ditu zazpi medezin]. (bis)	6A
	12A

Izena: Bederatzi puntukoa, txikiaren moldekoa.
Xehetasun aipagarriak: Errepikaduna.

4.5. V .MULTZOA

Berezien multzoa da. Estrofa erabat irregularrak dira hauek, eta molde bati jarraitzen ez diotenak. Bi ezaugarri horiek egiten dituzte berezi, eta halaxe izendatu ditugu. Tradiziozko zenbait pieza aztertzerakoan, zalantza ager daiteke ea aurrean duguna bertso-estrofa den edo ez, aski irregularra suerta baitaiteke. Halakoetan, txosten honen sarreran adierazi dugun irizpidea erabiltzea beste biderik ez zaio geratuko azertzaileari: estrofaren egitura metrikoak gutxieneko erregulartasunik baduen edo ez ikustea, eta horren arabera erabakitzea. Testuingurua, usadioa eta norbere sena aintzat hartzea ere lagungarri gertatuko dira, segur aski.

- Ezaugarri teknikoak: lerro jakinak ditu, anisosilabikoak puntutik puntura edo/eta hemistikiotik hemistikiora, bertso-lerro ereduak nahasian, ez molde jakin baten arabekoak, eta inoiz plurirrimoak.

- Izendatzea: Irregulartasunek berezi egiten dituzte multzo honetako estrofa, eta horixe markatuko dugu, berezi direla. Hemen ere berezi egingo ditugu Iparraldeko eta Hegoaldeko ereduak, hala dagokionean. Hegoaldeko sisteman lerro kopurua markatuko dugu lehenik, eta ondotik, berezien multzokoa dela esango dugu, eta jarraian, zenbat puntu dituen adieraziko dugu. Iparraldeko sisteman, puntu kopurua markatuko dugu lehenik, eta ondotik, berezien multzokoa dela esango dugu. Bietan berdin idazten den kasuetan, Iparraldeko ereduari jarraiki izendatuko ditugu (puntu kopurua markatuz lehenik, eta gainerrako xehetasunak gero). Hona adibide bat:

Maite bat maitatzen det maitagarria	12A
begi ederra du ta guztiz argia	12A
daukat urruti	5B
bainan ezin kendu det burutik	10B
haren itxura	5C
saldu al baliteke pisura	10C
urrearen truke	5D
[nork erosi faltako ez luke].(bis)	10D

Estrofaren izena: Zortzi puntuko berezia.

Xehetasun aipagarriak: Plurirrimoa, errepikaduna.

Hona hemen eredu gehiago:

Hegoaldeko sistema

Huni zaionak behatzen du erantzunen	8 4A
Iritxibauko semia nula hil den	8 4A
Etxandi Garindañek baitu eho Maulen	9 4A
merkatuti itzultzian bide gainen.	8 4A

Iparraldeko sistema

Huni zaionak behatzen du erantzunen	12A
Iritxibauko semia nula hil den	12A
Etxandi Garindañek baitu eho Maulen	13A
merkatuti itzultzian bide gainen.	12A

Estrofaren izena: Lau puntuko berezia.

Estrofaren izena: Zortziko berezia, 4 puntuz.

Xori errexinoletak ederki kantatzen	14A
bazter guziak ditu xoratzen	10A
sart arratsian	5B
sasi batian	5B
biga baziren	5C
eder ziren	4C
xarmant ziren	4C
manera oroz	5D
bai eta elgarrez aski agrados.	11D

Estrofaren izena: Bederatzi puntuko berezia.

Xehetasun aipagarriak: Plurirrimoa.

5. AMAIERA

Hauxe izan da gure sistematizazio ahalegina. Eltze guztiak bezala, hau ere surtan jartzean probatu beharko da, baina uste dugu balio izango duela egun bertsogintzan erabiltzen diren estrofa eredu sailkapenari egoki erantzuteko, bai tradizioak ekarri dizkigunak kokatzeko, eta berdin etorkizunean sortuko diren eredu berriak hartzeko ere. Eta hala ez bada, beste urrats bat egin beharko da, ahalik eta sistemarik oso eta zorrotzena aurkitu arte.

Bertsozale Elkarteko Iker taldeari gertatu zaion bezala, ez zaio zalantzarik falta izango bertso-doinu eta estrofa izendatzeko lanean hasten denari, beti-beti ez baita argi ikusten zein egitura metrikorekin ari garen, eta egitura metrikoa argi edukita ere, multzo batean edo bestean sailkatzeko modukoak izaten dira estrofa batzuk (askotarikoen eta berezien multzoan gertatzen da hori, batik bat). Halakoetan, aztertzailearen esku geratuko da zirt edo zart egitea.

6. GLOSATEGIA

A

- Ahapaldi:** Muinez edo moldez batasuna duten hitz neurtuzko lerro-multzoa.
- Aldaera:** Oinarri edo eredutzat hartzen den doinuarekiko alde edo desberdintasunen bat duen beste era bat.
- Anisosilabiko:** Silaba kopuru bereko bertso-lerroak ez dituen bertso-estrofa. Puntutik punturako edo/eta hemistikiotik hemistikiorako silaba kopuruan erregulartasunik ez duen bertso-estrofa.

B

- Barne-errepika:** Bertsoaren barruko hemistikio edo puntu bat errepikatzen denean.
- Barne-errima:** Puntutik punturako ohiko errimaz gaindiko hoskidetasun sistematikoa.
- Barne-etena:** Lehen hemistikioaren barruko etena, neurri handietan batez ere (5+5).
- Berezi:** Erabat irregularrak diren bertsoak.
- Bertso:** Ikus **Ahapaldi**
- Bertso-estrofa:** Ikus **Ahapaldi**.
- Bertsoaldi:** Gai beraren inguruko bertso-sorta, gaia emanda edo librean, bakarka, binaka edo gehiagoren artean botatakoak.
- Bertso-lerro:** Bertso-estrofaren barruko lerro bakoitza. Bertso-lerro batek puntu osoa hartzen duenean, puntu-lerro deituko diogu, eta bertso-lerro batek puntuaren hemistikio bat hartzen duenean, hemistikio-lerro deituko diogu.
- Besarkatu:** Errima txandakatzeko modu bat da. Adibidez, lehen oinak laugarrenarekin errimatzea eta bigarrenak hirugarrenarekin. (13A/13B/13B/13A)

Bihurki: Estrofa plurirrimoetan errimak txandakatuta ematea.

D

Doinu: Bertsoak kantatzerakoan, unitate bat osatzen duten altuera desberdineko musika-noten segida.

E

Erregular: Bertso-estofaren puntu guztiak berdin datozenean; alegia, beti neurri bera dutela lerro bakoiti eta bikoitiek, eta errima-hitzak beti berdin banatzen direla lerro bakoiti eta bikoitietan.

Errepika: Bertsoaren hemistikio bat edo puntu bat, amaierakoa gehienetan, errepikatzeari esaten zaio.

Errepika-makulu: Estofak diskurtsoren lagungarri zenbaitean izaten duen esaldi errepikatua, hitzez edo hitz jakinik gabe abesten dena.

Errima: Bi puntu edo gehiagoren amaieraren artean gertatzen den hots-berdintasuna.

Errima-hitz: Errima daramaten hitzak. Ikus **Oin**.

Ertain: 8 / 7A edo 15A silaba kopurua duten bertso-lerroz osatuta dagoen estrofa.

Eskema metriko: Estrofa baten ezaugarri tekniko guztiak adierazteko eskema. Ikus **egitura metrikoa**.

Estrofa: Ikus **Ahapaldi**.

Eten: Puntu bateko muga erritmikoa, pausune bat eratzen duena, bertso-lerroak zehaztua Hegoaldean.

G

Gurutzatu: Errima txandakatzeko modu bat da. Lehen oinak hirugarrenarekin eta bigarrenak laugarrenarekin errimatzen duenean, adibidez (7A / 6B / 7A / 6B).

H

Handi: 10 / 8A edo 18A silaba kopurua duten bertso-lerroz osatuta dagoen estrofa.

Hemistikio: Etenak puntua zatitzean sortutako atal bakoitza, puntu luzeek soilik dutena.
Adibidez: Hegoaldean 7 / 6A
Iparraldean 13A (7+6A)

Hemistikio-lerro: Etenaren ondorioz sortutako bertso-lerro bakoitza (10 / 8; 7 / 6).

I

Irregular: Bertso-estrofaren puntu guztiak berdin ez datozenean; lerro bakoiti eta bikoitiek beti neurri bera ez dutela alegia, eta erri-ma-hitzak beti berdin banatzen ez direla lerro bakoiti eta bikoitietan.

Isosilabiko: Puntutik punturako edo/eta hemistikiotik hemistikiorako silaba kopuruan erregularitasuna duen bertso-estrofa.

M

Metrika: Bertso-lerroen egitura, erritmo eta konbinazioez diharduen artea.

Molde: Bertso irregularren barruan joera metriko bat nagusitzen denean. Adibidez, handiaren moldekoa, berdinarekin moldekoa...

Monorrimo: Bertso-estrofaren oin guztiak errima berekoak direnean.

N

Neurri: Silaba eta puntu kopurua. Bertso-estrofa izendatzerakoan, *neurri terminoaren* ordez *estrofaren izena* terminoa erabiliko dugu.

O

Oin: Errima duen hitza, puntu bakoitzaren bukaeran doana. Ikus **Errima-hitz**.

P

Puntu: Oin bakoitzak mugatzen duen hitz-andana (bertso-lerro bat edo bi izan daitezke).

Puntu laburra: Hemistikoa ez duen puntua.

Puntu-lerro: Puntu osoa hartzen duen bertso-lerroa.

Puntu luzea: Bi hemistikio dituen puntua, hegoaldean bi lerrotan idazten dena.

Plurirrimo: Bertso-estrofa oinetan errima aldatzen denean.

T

Txiki: 7 / 6A edo 13A silaba kopurua duten bertso-lerroz osatuta dagoen estrofa.

OHARRAK:

A series of 25 horizontal dotted lines for writing.

